

**SAN MARKOS - KARTOI BILTZEA BULTZATZEKO KANPAINA**

## “Merkatariek, kartoia biltzekotan, egunero biltzeko eskatzen dute”

■ Konklusio hori atera dute Hernanin dendaz denda San Markosen kanpaina egiten ibili direnek ■ Sensibilizazio kanpaina atzo bukatu zen.



**Kartoi biltzeko kanpaina egiten Cuevas Farmazian.**

SAN Markos Mankomunitateak joan den hilean kartoi biltzea bultzatzeko kanpaina hasi zuen Mankomunitateko 10 herrietan. San markoseko ordezkariak Hernanin aste honetan ibili dira dendaz denda, zerbitzua esplikatu eta merkatariek kartoia birziklatzeko bidean jartzeko ahaleginean.

**ASTEAN BEHIN EDO BITAN**

San Markoseko Mankomunitateak, Donostia erdialdean ez beste leku guztietan, astean behin edo bitan biltzen du kartoia. Donostia erdialdean,

berriz, zerbitzu horrek egunero funtzionatzen du.

**LEKUA BEHAR**

Kartoi biltzeko kanpainen ibili direnek eritzi beretsua jaso dute Hernanin eta gainontzeko herrietan. Astean behin edo bitan biltzea motz gelditzen da. Merkataria batzuri egunero edo ia egunero sartzen zaie jeneroa eta kajak, enbalajeak eta abar leku handia eskatzen dute.

Bestalde, lekuz gaizki ez dabilenarentzat ere endredo dezentea omen da: aurrena dena gorde, gero, ostera dena

atera. Gauzak horrela, kartoi biltzea errazteko merkatariek zerbitzua egunerokoa izatea eskatzen dute.

**28 ESTLABEZIMENDU**

San Markosek zabaldukatko datuen arabera, Hernanin 285 merkatarietatik 28 establezimenduk darabilkete Mankomunitatearen zerbitzu hori. Kanpainak kopuru hori igotzea du helburu, hain zuzen ere. Horretarako, dendaz dendako bisitaz gain, kartoia botatzeko kontainer ondota seinaleak jarri dituzte, eta komertzioetan diptikoak banatu ere bai. □

**ARRAUNA**

## Hernani-Ubis Pedreña eta Pontejoseko banderatarara, gaur eta bihar

■ Gaur 17:15etan eta bihar 18:30etan ■ Hernani-  
arrek erdi parean ibiltzeko asmoa dute.



**Hernani-Ubis, trainerua muturra uretan sartuta.**

KANTABRIAKO uretan ibiliko dira Hernaniko mutilak larunbat eta igande honetan. Gaur Pedreñako bandera jokatuko dute eta estropadan 10 traineru aterako dira. Hernani-Ubisez gain, Santander, Pedreña, Santoña, Ur-Joko, Lutxana, Pontejos eta Algorta, besteak beste.

Batis Larburu Arraun Elkarteke lehendakariak esan digunez, hernaniarrek erdi parean egin behar lukete. Estropadako traineru bat edo beste kendu ezker, gainontzekoak

antzeko dabilzalako. Larunbat arratsaldeko paliza nahikoa ez dela, igandean Pontejoseko bandera jokatuko dute, Hondarrabi B tartean dela.

**MUTILEKIN, JUSTU**

Hernaniko traineruak, aste honetan, jubenilekin aritu behar izan du entrenamenduetan, errelebotan lanean ari diren lau mutilek ezin izan dutelako entrenatzera joan. Larburuk esan digunez, abuztuan jai hartzen dute eta orduan hobeto moldatzeko esperantza dute. □

**ARANOKO JAIAK**

## Pelota finalak, Oilasko jatea, 'Non Stop' eta gaupasa gaur, Muxutruk taldearekin

■ Partiduak 17:00etan hasiko dira eta afaria 22:00etan.

**Ford**

**Antziola-Motor**  
Zerbitzu Ofiziala

**Antziola-Motor**

- ▶ Kotxe berri eta aukerako en salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

**Antziola Motorren ikusi eta probatu egin dezakezu.**

**Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxa 943 55 21 96 HERNANI**

**HERNANI**

**Bidaia**

HERRIAK - MENDIAK - TURISMOA

**HERNANI BIDAIAK**

Urbietan, 6

☎ : 943- 33 00 49 / 33 01 74  
Faxa: 943 - 33 01 74  
20.120 HERNANI

**Telemar**

**ITXASTELE S.L.**  
Telyco denda  
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00  
20120 HERNANI

**ESKEINTZAK:**  
*ordenagailua:*  
**AMD K7 ATHLON 1000 Mhz**  
(SDRAM 512 Mbko memoria, 40 Gbko diska gogorra, 17"ko monitorea, Geforce MX 32 Mb AGP tarjeta grafikoa, DVD Pioneer irakurlea, Yamaha Erregabadore, Sound Blaster 1024 PCI ko soinu txartela ...)

**149.900 Pta + %16ko Bez a.**

- ⇒ 'Telefonica'ko banatzailea
- ⇒ Movistar
- ⇒ Zentralitak
- ⇒ Faxak
- ⇒ Telefonía mugikorra

**Movistar**

**Activa mobila:**

Orain PACK MOVISTAR

## Ehundaka hernaniar Tourrera asteburu honetan Pirineoetako etapak ikustera

■ Batzuk atzoko etapa ikustera joanak dira, baina gehienak gaurkoa eta biharkoa ikustera dijoaz ■ Beloki, Olano eta batzuk JOCC Elkartetik paseak dira.



Luz Ardideneko aldapak aurten ere euskaldunetz beteko dira.

UZTAILEAN hernaniar askorentzat zita garrantzitsua da Tourra. Urtero koadrila asko dira, karrera Pirineoetatik pasatzen denean bertara hurbiltzen direnak. Aurten asteburuan tokatu dira Pirineoetako etapak eta herritar askok egin du asteburua han pasatzeko plana.

### AUTOBUSIK EZ

Aurten ez da autobusik antolatu Hernanitik. Asteburua izanik, koadrilek beste era bateko plana egin dute eta kotxe partikularretan hurbilduko dira Pirineotara. Batzuk ostiral, larunbat eta igandeko etapak ikustera. Beste batzuk astebu-

ruko biak eta besteak etapa bat.

### ZALETASUN HAUNDIA

Hernani beti izan da txirrindularitza zalea. Bi txirrindulari profesional ere izan ditu duela urte dexente: Jose Luis Miner (gerra aurretik izan zen profesional) eta Jexux Otxotorena. Afizionatu mailan talderik indartsuenetakoa Hernanik izan du urtetan, JOCC Ekar-tearen taldea (*Gurelesa* edo *Kaiku* zena). Talde honetatik pasa dira, aurten Tourrean dabilen txirrindulari asko, Beloki, Castresana, Txaurra eta Txente Gartzia esaterako.

Beraz, Hernaniko zaletuek



### Jexux Otxotorena

- 1968an Profesionala.  
- 66-67 urtetan Mexikoko Olinpiadak prestatzeko probetan Urrezko eta zilarrezko domina, taldeka 100km-ko erlojupekoan. Lesio bat medio ez zen joan Olinpiadetara.  
- 67an zilarrezko domina taldeka Tunezen Mediterraneoko Jokietan.

badute nor animatu. Beste hainbat profesional ezagun ere pasa da *Kaikutik*, Olano, Alberto Martinez, Dominguez eta abar.

### ‘ESAIT’EN EKINTZAK

Egun hauetan Pirineotan bilduko den euskaldun kopurua ikusita, ESAITek, euskal selekzioen aldeko aldarrikapena egingo du. Horretarako bi ekitaldi antolatu ditu Tourmaleten. Larunbat arratsaldean, bertako zelai batean festa izango da, pintxoak, sagardoa, musika eta abarrekin. Igande goizean berriz, bizikletan Tourmaletara igoera antolatu dute. □

## Madalena jaiak Zaharren Egoitzan

■ Lau egunetan dituzte festa ekitaldiak ■ Gaur Toka Txapelketa eta dantzaldia daude.



Paulo Tikia eta Pako irabazleak, Inaxi eta Joakinaren ondoan.

SANTA Maria Magdalena Zaharren Egoitzak festa antolatu du Madalenak direla-eta. Festa ostiralean bertan hasi zen Igel eta Puntu txapelketarekin. Irabazleak Paulo Zubiarra eta Pako Arizmendi izan dira; bigarren Inaxi Azpiolea eta Joakina Kamio. Igel txapelketa, berriz, Jose Luis Gorostegik irabazi du eta Sofia Rosco gelditu da bigarren.

### TOKA ETA DANTZA

Goiz eta arratsalde dute gaur Sandiusterrin festa. Goizean, 10:30etan, Toka Txapelketa egingo dute. Arratsaldean,

berriz, *Gelatxo* Orkestarekin dantzaldia, seietatik aurrera.

### MADALENA EGUNA IGANDEAN

Uztaiaren 22a da Madalena eguna eta Sandiusterrin egun osoko jaia eginda ospatuko dute. Goizeko 08:30etan Diana txistulariekin eta 12:00etan Meza Nagusia. Ordu batean Injeniero Industrialen Tunak jarriko du festa eta ordubietan bazkaria trikitilari eta guzti. Arratsaldean, Bingo berezia.

Astelehenean, bukatzeko, San Joanetako diapositibak botako dituzte. □

## TXANTXANGORRI ELKARTEA

### Erregularitate sariko azken proba gaur, Santa Barbaran

■ ‘Ehiza ibilbidea’ modalitatean da ■ Oraingoan, Barragan dioa aurrea 71 punturekin.

TIROKO Erregularitate txapelketa gaur bukatuko da. Txapelketa hori modalitate ezberdineko bost tiraldikoa izaten da eta denera puntu gehiena dituenak irabazten du.

Oraingoan gauza oso estu dago, aurrengo hirurak puntu bakarreko aldearekin baitaude. Lau tiraldi eta gero, Cristobal Barragan dioa aurrea 71 punturekin. Bigarren eta hirugarren postuan Andoni Redondo eta Manu Loinaz daude, 70na punturekin. Lau garren, berriz, Inazio Urdanpilleta 65 punturekin.

### IZENA EMATEKO

08:30-09:30

Txapelketan ateratzeko zortziak eta erdiatik bederatzia eta erdiatara eman behar da izena eta 1.000 pta da inkripzioa, platerak barne. *Ehiza ibilbidea* modalitatean 30 plater dira. Kategoria bakarrera jokutzen da.

### SARIAK

Aurrengo bederatziek izango dute saria. Irabazleak bi bogabante eta bi botila txakolin eramango ditu eta gainontzekoek ehizeko kartutxoak. □

## Adituentzat Armstrong faborito



### PATXI MINER

33 urtetan afizionatueta zuzendari Zubeldia, Heras, Osa anaiak eta abarrekin.

“Nik uste Armstrongek irabaziko duela aurten ere. Belokiri podiumna lortzen kostatzen zaio, baina lortuko duela uste dut”.



### JEXUX OTXOTORENA

1968an profesionala izan zen CARPI taldearekin.

“Ezer arrarorik ez dala Armstrongek irabaziko du. Baina, oraindik gertatu daiteke zerbait.”  
“Belokik iazkoa errepikatuko duela uste dut”.



### ION ARMENDARIZ

Kaiku taldeko entrenatzaile izana.

“Armstrongek irabaziko du eta errez gainera.”  
“Jendeak gutxi baloratzen du Belokik iaz lortutakoa eta izugarria da. Euskaltel-nibela ematen ari da”.

## HEMEN

Ibilgailuak engrasatu eta eskuz garbitzen ditugu.

Florida 56 - ☎ 943 551005 - HERNANI (LIDL eta DIA supermerkatuetatik 100 metrora)

Ibai mendiko  
Kirolak

Nafar kalea 23  
Tel: 943 333724  
HERNANI



Ibai mendiko  
Kirolak

Nagusia 10  
Tel: 943 590372  
ANDOAIN

## HERIOTZAK

Andres Etxeberria Etxeberria  
Atzo hil zen 64 urte zituela.

Hileta elizkizunak gaur 19:00etan Floridako San Jose parrokan.

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak: 943 550093  
☎ Udaltzaingoa: 943 333288  
☎ DYA: 943 464622  
☎ Autobusak: 943 556662  
☎ Anbulatorioa: 943 557750  
☎ Jokalari anonimoak 943 331103

### ☎ FARMAZIAK

☎ Egunez: Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941  
☎ Gaez: Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941

## IRAGARKI MERKEAK

■ Pisu eguzkitsua salgai Hernanin 19 milioietan. Interesik duenak 655. 72 25 19 telefonora dei ezazue. Agentzietakoek ez deitu.